ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2025eko apirilaren 30a, asteazkena • 47 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## AMURRIOKO UDALA

**2025eko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren zerga-errolda behin betiko onartzea**

2025eko martxoaren 20an Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako eta 2025eko martxoaren 26ko 35 zenbakiko ALHAOn argitaratutako trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren (2025/1044 espedientea) 2025eko zerga-erroldaren behin-behineko onarpenari buruzko erabakiaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea igaro ondoren, ez da erreklamaziorik aurkeztu. Horrenbestez, erabaki hori behin betikotzat jotzen da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 98.3 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

2025eko maiatzaren 1etik ekainaren 30era bitarteko egun baliodunetan, biak barne, borondatezko aldian kobratuko dira 2025eko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari dagozkion ordainagiriak.

Ordainagiriak helbideratuta ez dituzten zergadunek zerga hori udaletxean dagoen herritarren kutxazainean eta euskal administrazioaren ordainketa-pasabidean ordaindu ahal izango dute, udalaren web orriaren bidez (https://udala.amurrio.eus/eus/zerbitzuak/ogasuna-eta-zerga-bilketa/ordainketa-pasabidea) eta Eusko Jaurlaritzaren MiPago Wallet aplikazioaren bidez. Kobratzeko aldia hasi baino 15 egun lehenago arte onartuko dira helbideratzeak.

Epe hori igarotakoan, administrazio-premiamenduko betearazpen-prozedura hasiko da, indarrean dagoen Zerga-bilketako Erregelamendu Orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorriz. Ordaindu ez diren kuotak kobratuko dira, ehuneko 20rainoko errekarguarekin, eta errekargu hori eta luzapenekoa bateragarriak izango dira.

Jende guztiak jakin dezan ematen da horren berri.

Amurrion, 2025eko apirilaren 22an

*Alkatea*
*JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432


Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2025.04.30 05:25:32 Z